

## Euskaraz jaio



ANE LABAKA MAYOZ  
BERTSOLARIA

**C**armen Junyent hizkuntzalaria izan zen katalanez hil ahal izatea bere azken hatseraino aldarrikatu zuena. Hil hurren zela, osasun-langileekin izandako bizipenak idatzi, eta bera hil ondoren argitara zitzatela eskatu zuen. Hizkuntza pertsona batek beste batekiko duen trataeraren parte dela azpimarratu nahi izan zuen horrela.

Junyenten testigantzen artean, bada bat erizain batekin gertatutakoak bil-tzen dituena. Beste batzuek ez bezala, erizain horrek ez omen zuen eragozpenik gaixoa katalanez zuzentzen zitzaionean. Behin, ordea, krisi betean, garrasi egin zion berari espainolez hitz egin ziezaioren. Junyentek propio aipatzen du une larri batean gertatu zela, baina oihu horiek katalanez hitz egiteagatik bizitzan pairatu izan zituen umiliazio guztiak berriro biziarazi zizkiotela kontatzen du segidan. Hain zuzen, horixe litzateke saihestu beharrekoa: une hain delikatu batean batere lagungarriak ez diren oroitzapen negatiboak pilatzea.

Ondo gogoan du aitona-amonek nola nabarmentzen zuten tartean-tartean mediku euskalduna tokatu zitzaie-la. Tokatu, bai, Gabonetako loteria nola. Kontua ez baita mahaitxo batean “Hemen euskaraz” dioen kartela jartzea bezain sinplea. Ez eta erditze-planean

euskaraz artatua izan nahi zenukeela x batekin markatzea bezain erraza.

Orain urtebete gertatu zen. Nahita hautatu zuen eskualde mailako ospitale txikiago bat, berez zegokiona handiagoa baitzen puskaz eta, ondorioz, munstroagoa eta, ondorioz, erdaldunagoa irudikatzen baitzuen berak. Erditzeak, baina, apenas izan zuen aurretiaz irudikatu zuenetik ezer. Oraindik ez zaizkio zauriak orbaindu. Oraindik ez du hitzik hogeita hamar orduren ostean ginekologoa erditze-gelara sartu zenean sentitu zuena ahoskatzeko. *Este parto lo voy a dirigir yo*. Badaki hizkuntza aldatzearekin bat hitz egiteko modua aldatu zela, kolpetik. Eta, posible balitz, nahiago luke hortik aurrerakoa ez gogoratu.

Ordutik, besteen hitzen bila dihardu. Estitxu Fernandezek *Sortze berri bat* liburuan Nahia Alkortak kontatutakoak hein berean zaizkio harramazka eta laztan. Alkortaren arabera, hizkuntza-eskubideek ere badute bere karga indarkeria obstetrikokan eta gaztelania botere-tresna gisa erabiltzen da. Autoritatea aipatzen du Alkortak, eta Guardia Zibila. Hitz gehiagoren faltan, hala kontatu lezake aurrerantzean, akaso; hanka zabalik zegoela, Guardia Zibila sartu zitzaie-la erditze-gelan. ●

## Gerraz



LEIRE NARBAIZA  
IRAKASLEA

**“S**i vis pacem, para bellum” kantatzen genuen laurogeiko hamarkadan orduko gazte euskaldunok. Bakea nahi baduzu, prestatu gerrarako, oihukatzen genuen latinez, ulertu barik oso ondo esaldiaren esanahia.

Sasoi hartan, euskal gatazka gori-gori zegoen, eta munduak Gerra Hotzaren azken urteak bizi zituen. Arma nuklearraren gaineko berriak etengabeak ziren komunikabideetan: neutroi bonba, misilen kontrako ezkutua, botoi gorria... eguneroko ogia.

Bigarren Mundu Gerraren osteko bake aro nahiko luzea. Ustezko bakea

zen, ostera, esan beharra dago, gudurako prestatzea etengabea izan zelako.

Ostean, misil nuklearraren suntsitzeko garaia etorri zen, eta bazirudien eskala handiko gudaren mamua uxatuko zela.

Baina Gerraren Jaunek, globalki ez bazen ere, ez zuten euren lana abandonatu, eta mamu zahar horiek hauspotzen jardun dute ordutik, gerla negozioa dutelako. Gerra hotsak zabaldua, beldurra eragiten dute, gizartean perlesia sortzeko, eta horrela helburua bete: gu kanoi bazka bihurtu, *business*-ak aurrera egin dezan.

*Si vis pacem, para bellum* egia izan ez dadin, paralisia astindu beharko dugu gainetik. ●